


EUSKAL

KULTUR

ERAKUNDEA

1990



LOTA - B.P. 27
UZTARITZE/64480 USTARITZ
TEL. 59 93 25 25 - FAX 59 93 06 84

Euskal Kultur Erakundea, Kultura Komunikabide eta Obra handie
Ministeritzak Akitania eskuadreko Kontseiluak eta "Pyrénées-
Atlantiques" Departamenduko Kontseilu Orokorrak
girustatua, Euskal Herriko haren arteko Zindikata eta
Euskal Kultur Elkarrekin parte da

1990ean,
EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAREN
ERAIKITZEKO EGIN URRATSAK



Apirlaren 7an : Baionako Komertzio eta Industria Ganbaran, Euskal Kultur Erakundearen Biltzar Nagusi sortzailea. Euskal Kultur elkartetako zortzi ordezkarien hautatzea eta Botere Publikoetako zortzi ordezkarien izendatzea. Biltzar Nagusiaren ondotik Administrazio kontseiluaren lehen bilkura.

Apirlaren 21ean : Baionako “Bakea” etxearen, Administrazio kontseiluaren osatzeko, araudietako 6. kapituluaren arabera, lau pertsona ospetsu kalifikaturen hautatzea.

Maiatzaren 5ean : Uztaritzeko “Lota” Jauregian, Euskal Kultur Erakundeko bulegoko kideen hautatzea. Zuzendari kargurako dei agiria zabaltzen da.

Maiatzaren 19an : Administrazio kontseiluko biltzarra, hautagaien igorri gutunen ikertzeko.

Ekainaren 1ean : Zuzendari gaien xedeak entzuten dituzte Administrazio Kontseilukoek.

Ekainaren 30ean : Baionako Herriko Etxeko gela nagusian, Euskal Kultura sustengatzeko gai izanen den Herriarteko Sindikataren Biltzar Nagusi sortzailea.

Uztailaren 19an : Kulturako Ministeritzak Zuzendari izateko bere baietza eman dion Txomin HEGUYk, 1990.eko Aitzinkontua eta ekintzen egitaraua aurkezten ditu Administrazio Kontseiluaren aintzinean.

Agorrilaren 1ean : Txomin HEGUY Jauna, Zuzendari gisa, eta Daniel LANDART, animazioaren zuzendari gisa, lanean hasten dira. Idazkari-Kontugile lanpostuarentzat dei agiri bat zabaldua da.

Agorrilaren 2an : Baionako Suprefeturan, Finantza-komitea biltzen da eta 1990.eko aintzinkondua ontzat ematen du.

Agorrilaren 25ean : Idazkari-kontugile gaiekin elkarrizketak.

Urriaren 1ean : Nelly CHALLET Andereak bere kargu berria hartzen du.

Azaroaren 24ean : Euskal Kultur Erakundeko bulegoen estrena. Uztaritzeko “Lota” Jauregiko lehen estaian dira. Uztaritzeko Herriak, hiru urterentzat urririk eskaintzen dizkio.

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN OSAKETA



Euskal Kultur elkarteen ordezkariak

Terexa SEGUIN Anderea,
Jakes ABEERRY, Xipri ARBELBIDE¹, Erramun BACHOC, Peio CEDARRY, Filgi CLAVERIE, Pantxo ETCHEGOIN, Peio GOITY Jaunak.

Botere publikoen ordezkariak

Estadua : Jaun Prefeta (edo Jaun Suprefeta), Jérôme BOUET Jauna, DRAC-eko Zuzendaria,

Akitania eskualdea : Didier BOROTRA², Jean-Claude LECLERC-D'ORLEAC Jaunak.

Pyrénées-Atlantiques departamenduko kontseilu orokorra : Jacques COUMET eta Jean-Pierre DESTRADE Jaunak.

Euskal Herrien arteko Zindikata³ : Paul BADIOLA, Bernard LASSALLE Jaunak.

Presuna kalifikatuak : Ramuntxo CAMBLONG, Junes CAZENAVE, Pierre BIDART, Jean HARITSCHELHAR Jaunak.

BULEGO KIDEAK



Lehendakaria	:	Ramuntxo CAMBLONG Jna
1n Lehendakari ordea	:	Jacques COUMET Jna
2n Lehendakari ordea	:	Erramun BACHOC Jna
Idazkari nagusia	:	Peio GOITY Jna
Diruzaina	:	Filgi CLAVERIE Jna

Diru konduen arduraduna
Michel FAGOAGA Jna

¹ Bere kargua uzten zuen 90.eko urriaren 20ean

² 1991ean, Didier Borotra Jauna, Miarrizko auzapez izendatua izanik, Eskualdean zuen kargua utzi du, eta ondorioz, Administrazio Kontseilu honetan zuena ere.

³ Baxe-Nafarro-Xuberoko Biltzarraren Lehendakari den F. Duboscq Jauna, eta Lapurdiko Biltzarraren Lehendakari den D. Poulou Jauna, Euskal Herriko herrien ordezkari izan dira Zindikat berria muntatzeko artean.

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA : EGIN MOLDE BATEAN FINKATUA



Euskal Kultur Erakundearen helburuak argiak dira (Araudien 4. artikulua)

“1) Elkarte honek izan behar du :

- *Euskal hizkuntza eta kulturaren sustengatzeko egitura bat*
- *Goi-mailako ikerketa eta kultur harreman gune bat, eta hori sail guzietan*
- *Euskal kulturaren sorkuntzarako bultzatzaile bat.*

2) Elkarteak arlo hauetan lan egin beharko du :

- *Euskalgintza,*
- *Literatura eta edizioa,*
- *Antzerkia eta bertsularitza,*
- *Entzun-ikus produkzioa,*
- *Dantza, kantua, musika,*
- *Arte plastikoak,*
- *Ondarea eta ingurumena*
- *Euskal kirolak.*

3) Mail desberdinetan lagundu beharko du kultur ekintza

- *sorkuntza*
- *hedapena*
- *kultur animazioa*
- *formakuntza*

4) Ahal tekniko batzuen bereganatzeaz eta kudeatzeaz arduratuko da eta eskakizuna eginen duten elkarte eta herriei zerbitzu hori eskainiko”.

Sorkuntza, hedapen, formakuntza eta kultur harremanetan oinarritzen da beraz Euskal Kultur Erakundearen egitasmo kulturala.

Denbora berean, gaurko euskal kultur errealitateari ahal bezain erantzun baikorra ekartzeko, egin molde egokienaren proposatzeaz hastapenetik griñatu da. Gehienbat eta lehen epe batean, Euskal Kultur Erakundeak lekuko iniziatiabak sustengatzea, hobetzea, azkartzea, biltzea hautatu du, eta ez, berak kultur egitarau bat asmatzea eta bere ber eramaitea.

Egin molde xuxena iduritzen zaigu. Ezin baztertuzko arrazoi baten gainean finkatzen da : Euskal kultur aktoreen itxaropen eta nahikeria -artistena, elkarrenea-. Hauien bidez eta hauentzat da Euskal Kultur Erakundea sortu.

Egin molde baikorra iduritzen zaigu. Konfiantxa bat berpizten ari da, egitasmoak trumilka etortzen zaizkigu, gogoeta zabalduz doa, egiazko komunikazio giro bat jartzen ari da, partaidetasun berri bat sortzen ari da : Euskal Herriko herriena bereziki, gero eta gehiago ikusten bait ditugu Kultur Erakundeak sustengatzen dituen elkarrean aldean lan egiten.

Bizkitartean, helburu nagusia osorik gelditzen da : gure hizkuntza eta kulturaren ezagupena lortzea, gero eta kalitate haundiago batean oinarrituz. Hortarako, formakuntza artistikoa eta teknikoa, kultur hedapena arramoldatzea -ikusgarriak kudeatuz, elkarreak egitasmo finko batzuen inguruau bilduz-, profezionaltasun menperatu bat behar-beharrezkoak izanen dira.

Euskal Kultur Erakundeak bide hortarik segituko du hasi lana, bere ahal eta konpetentziengarabera.

1990.eko

EKINTZA BILDUMA



▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼ SORKUNTZA

EUSKALGINTZA

* “*Herria eta Kultura*”

Herria astekarian 1991ean, hilabetean behin agertuko diren 4 hosto kulturalen preparakuntza.
Lehen gaiak :

- Elizanbururen omenez, XIX. mendeko olerkaria,
- Antzerkia, biziaren ufakoa. Galarrotsak festibalari buruz,
- Euskal Herriko idazleen biltzarra Saran,
- Udako Euskal Unibertsitatea eta Unibertsitatearen egoera Euskal Herrian,
- Euskal dantza,
- Ondarea.

Dozier hauek, gai bakotxeko jakile batzuekin moldatuak dira.

Partaide : Herria astekaria

* “*Euskara agerian*”

“Euskara agerian - La langue basque dans la vie publique” deitu sailaren asmakuntza eta
preparakuntza.`

Lehen liburua : herrien izenak eta herri aurkibideak.

Agerpena : 1991.eko maiatzean.

Egilea : Euskal Kultur Erakundea.

LITERATURA ETA EDIZIOA

* *Literatura klasikoa*

“Ikusten duzu goizean... eta bertze”, JB Elizanbururi buruzko liburua preparatzea (1828-1891). Bi
hizkuntzetako edizioa (euskaraz-frantseset).

Saran, 1991.eko Euskal Herriko idazleen Biltzarrean agertua.

Partaide : Ikas eta Sarako Olhain elkartea

* *Haur eta gazte-literatura*

4-7 urtetako haurrei buruzko hilabetekari egitasmo bat aitzinatzea (Tolosako Milan
Argitaletxeak egiten duen “Toboggan” iduriko zerbait). Uhaitza elkartearak hasi zuen sailaren
segitza. Ikerketa lanak egiten ari dira.

* *Literatura garaikidea*

“Maiatz” 19 eta 20. literatur agerkarien publikatzea. 19. zenbakia 1990.eko urte bukaeran
agertua da.

Partaide : Maiatz elkartea

ANTZERKIA

* **“Berantenaz seietan”** Bordaxuri Antzerki taldearen obra berriaren koprodukzioa.
Antzezlan berri hau Donibane Lohizuneko “Galarrotsak” festibalean aurkeztua izan da
1991.eko apirilaren 14ean.

Partaide : Bordaxuri Antzerki taldea.

ENTZUN-IKUS

* **"Ostatu xokoan"**. Euskal Herriko ostate batzutan, zuzenean eta publikoki grabatuak izanen diren emankizunen preparatzea.

“Café-théâtre” moduko arrats horiek, kantari, bertsulari, kondalari ezagunen inguruak antolatuak dira. Grabaketak landu eta, emankizunak Gure Irratitik zabaldua izanen dira. (Lehenak Arrangoitze, Behobi-Pausu, Azkaine eta Heletan iraganen dira).

Partaide : Entzun-Ikus elkartea (Gure Irratia)

* **"Pottiko beltza"**. Xuberoko Botza Irratitik zabaldua izanen den ipuia (koprodukzioa). “Pottiko beltza”, “Niourk”, Steufan Vulen nobelaren euskarazko moldakuntza da. Egilea : Junes Cazenave.

Ipui horretan parte hartuko duten jokolarien formakuntza 1991.eko ekainean eginen da. Urte honen bukaeran ateratuko da.

Partaide : Xiberoko Botza

DANTZA

* **"Nafarroa"**. Koldo Zabalak egindako azken dantza obraren koprodukzioa.

Baigorriko Kultur Astea emana izan da aitzin emanaldia 1991.eko apirilaren 27an.

Lehen emanaldia Miarrizen izanen da 1991.eko ekainaren 2an.

Partaide : Oldarra Baletak

* **"Pasaiako"**. Mizel Theret-ren azken obraren koprodukzioa.

1991.eko urte ondarrean plazaratuko da.

Partaidea: Ekarle dantza taldea

KANTU & MUSIKA

* **Koru kantua - Euskal Herriko Koroari** obra berri batzuen manatzea :

“Ttanto Malacasta”

“Lastozko Zubia”

Zuzendari : Javier Bello-Portu.

Partaide : Euskal Herriko Koroa

* **Kantu - Elizanburu diska** : Jean-Baptiste Elizanbururi buruzko diskaren preparatzea.

Iparraldeko kantari askok parte hartuko dute.

Egileak : Elkar eta Euskal Kultur Erakundea

ONDAREA

* **"Txalupa Handi"** : Frantziako kostaldeko itsasontzien zeingehiagoka delata, 13,28 metrako euskal txalupa baten eraikitzea. Zokoako “Hiruak Bat” lantegiak moldatuko du. Argazki, bideoz etabar... segituko da eraikitura hori. Datorren urteko Brest hirian eginen den elgarretaratze haundian parte hartuko du. Obren hastapenak : 1991.eko maiatzaren 24ean.

Partaide : Itsas Begia

* **Jantzi herrikoia** : Erakusketa hori egiten ari da. Parte bat jadanik moldatua da. Egilea : Claude Iruretagoiena

Partaide : Oinak Arin

* **Ondareaz diaporama** :

1991.eko urte huntan agertua izanen da.

Partaide : Lauburu

HEDAPENA

EUSKALGINTZA

▼ **“Euskal Hitz”** : Xiberuko Kultur Astekari, euskararen historiari buruzko erakusketa 1990.eko urriaren 26etik azaroaren 4a arte. Estreinatze ofiziala 1990.eko urriaren 26an iragan da Mauleko Herriko Etxean.

Partaide : Kultur Astearen Batasun antolatzailea

Koprodukzioa : Kultur Bideetan

▼ **Bideoteka pedagogiko eta artistikoaren osatzea.** Euskarazko filma berri batzuen bereganatzea.

Partaide : Ikas

LITERATURA ETA EDIZIOA

▼ **“Kantu-Olerki”** : Gau beila poetikoa (euskarazko olerki eta kantuak) Maulen, 1990.eko azaroaren 1ean, Jean-Louis Davant, Roger Idiart, Txomin Heguy besteak beste, Euskal Kultur Astekari.

Partaide : Kultur Astearen Batasun antolatzailea

▼ **Euskal Literaturaz mintzaldia.** Luzien Etxezaharretarekin Xalbador Ikastegian 1990.eko abendoaren 21ean.

Partaide : Txirinbito

▼ **“Uhainez uhain”**. Itsasoaren gaia euskal literaturan, “Gure Irratian” zabaldutako emankizun publikoa, 1990.eko abendoaren 22an, Urruñako Kultur Astekari.

Partaide : Hazia

ANTZERKIA

* **“Karrika Antzerkia”**

Ikusgarria haurrentzat Maulen eta Barkoxen 1990.eko urriaren 27an, Xiberuko Kultur Astekari. (Goloka antzerki taldea).

Partaide : Kultur Astearen Batasun antolatzailea

* **“Gure Etxeko Idiak eta Orgak”** Bordaxuri taldeak emanik

Azken emanaldiak :

- 1990.eko urriaren 31an Ligin, Xiberuko Kultur Astekari

Partaide : Kultur Astearen Batasun antolatzailea

- 1991.eko urtarrilaren 26an Bardozen.

Partaide : Bardozeko Foyer Rural Etxea

* **“Galarrotsak”**

1991.eko apirilean, Donibane Lohizunen iraganen den Euskal Antzerki Festibalaren lehen preparakuntzak.

Partaide : E.A.T.B.

IPUINA

* “*Hitza Pitz*”

Munduko Ipuin eta Kondalarien Festibala, 1990.eko irailaren 28, 29 et 30ean Hazparnen. Gomitatu 7 kondalariak : Mimi Barthélémy, Abbi Patrix, Claude Alranq, Sam Cannarozzi, Manfeï Obin, Pello Anorga, Koldo Amestoy.

Partaide : Hitza Pitz

BERTSULARITZA

* “*Bertsu saioa*” Aiherrako Belzuntze elkartearren 50garren urtemugakari 1990.eko azaroaren 25ean : Ernest Alkat, Pablo Aristorena, Jean-Pierre Mendiboure, Iñaki Murua, Mixel Xalbador, Xanpun. Gai emaile : Jean-Paul Duhalde.

1990.eko azaroaren 24etik 27ra, Euskal Herriko Kultur Etxeak moldatu duen “Bertsularitza” erakusketaren aurkezpena.

Partaide : Belzuntze

* “*Mattin omendua*” - 1991.eko irailean Ahetzen iraganen diren ekitaldien preparakuntza Mattinen omenaldiaren karietara

Partaide : Bertsularien Lagunak

DANTZA

* Mauleko Jai-Alaian, 1991.eko urriaren 27an, Xiberuko Kultur Astekari, “*Aintzindariak*” Xiberuko dantzari batasunaren ikusgarria.

Partaide : Kultur Astearen Batasun antolatzailea

* Mauleko Jai-Alaian, Miarritzeko *Oldarra* baleten ikusgarria 1991.eko urtarrilaren 19an.

Partaide : Uhaitza

KANTUA ETA MUSIKA

* KORO KANTUA

▼ Xiberuko “*Mendiz Mendi*” koroaren ateraldia Txekoslobakian 1990.eko agorrilaren 2tik 12ra (Alain Perpétue zuzendari)

Partaide : Khanta Xiberua

▼ “*Zarautz-Txiki*” Zarauzko haurren abesbatza Mauleko elizan, 1990.eko urriaren 26an Xiberuko Kultur Astekari (10-14 urte arteko 60 bat kantari).

Partaide : Kultur Astearen Batasun antolatzailea

▼ “*Koro Eskifaia*” Hondarribiko abesbatza, Urruñako elizan, 1990.eko abendoaren 22an. Lehen zatian : Txomin Artola (kantari) eta Beñat Elizondo (musikari), Urruñako Kultur astekari.

Partaide : Hazia

* KANTU HERRIKOIA

▼ “Ahozko Kanta Herrikoien elgarretaratzeak” (3garren edizioa)

Xiberuko 4 kantari, Eusebio Izeta (Nafarroa), Erdizka Otxotea (Gipuzkoa), Trio Durif, Vrod, Champenal (Limousin eta Auvergne eskualdetako kantu eta musika) 1990.eko azaroaren 17an, Mauleko elizan.

Partaide : Khanta Xiberua

* KANTUA

▼ Gotañen kantaldia : Peio Serbielle 1990.eko maiatzaren 15ean

Partaide : Uhaitza

▼ “AEKantuz” - 1990.eko ekainaren 9an, kantaldia : Peio Serbielle, Eltzegor eta Niko Etxart.

Partaide : A.E.K.

▼ “Neguko Kantaldiak” Hazparnen

1990.11.10 : Aritzak - Benito Lertxundi

1990.12.15 : P. P. Berzaitz - J.M. Bedaxagar - P. Serbielle

1991.01.19 : Peio Ospital, Pantxo Carrère, Enrike Zelaia

1991.03.01 : Brassens omendua : T. Artola, A. Duhalde, J. Favreau, A. Chiron, B. Tessier

Partaide : Eihartzea

▼ Donaixtin kantaldia : Xabier Elgart - Kolore Bikotea eta Jon Bergaretxe. 1990.eko abendoaren 22an

Partaide : Haize Berri

▼ Irulegiko Irratiaren ikusgarriak : 1991.eko otsailean, martxoan eta apirilean

- Ostatu Xokoa Orzaizen : Bertsulariak eta Kantariak

- Donibane Garaziko elizan : Gorka Knorr, Patxi Zabaleta, Urko, Aitor Badiola

- Heletako Erregelu gelan : J. Bergaretxe eta Ganbara taldea.

Partaide : Irulegiko Irratia

▼ Bardozten kantaldia : Beñat Achiary, B. Doneda, D. Regef, Ninh Le Quan, 1991.eko martxoaren 2an.

Partaide : Bardozeko Foyer Rural Etxea

ENTZUN-IKUS SAILA

* “Ke arteko egunak” Antton Ezeizaren filma 1990.eko urriaren 19an Maulen Xiberuko Kultur Astekari.

Partaide : Kultur Astearen Batasun antolatzailea

* Marrazki bividunak - Pitxu eta Kalabaza Tripontzia

“Akelarre” filma 1990.eko abendoaren 21ean

Partaide : Xalbador ikastegiko Txirinbito elkartea

* “Itsasoan” Rafael Trekuren filma 1990.eko abendoaren 23an, Urruñako Kultur Astekari.

Partaide : Hazia

* “Bela” D. Munduteguy-k egin filma, Urruñako Kultur Astekari 1990.eko abendoaren 30ean.

Partaide : Hazia

ARTE PLASTIKOAK

* **"Uda Erakusketa"** lekuko margolari eta zizelkari batzuen obren erakusketa 1990.eko ekainaren 15etik agorrilaren 15era Izurako Kultur Etxean.

Partaide : Haize Berri

* **Erakusketa** Xiberuko margolari batzuen obrak, Xiberuko Kultur Astean. Estreinatzea 1990.eko urriaren 27an.

Partaide : Kultur Astearen Batasun antolatzalea

* **"Itsasoa"** gaitzat hartuz, margo erakusketa, Urruñako Kultur Astekari. Estreinatzea 1990.eko abendoaren 21ean.

Partaide : Hazia

* **Erakusketak** Neguko Kantaldiak deitu saioaren barne Hazparnen : Irkus Robles-Aranguiz (90.10.11), Gonzalo Etxebarria, Thierry Hullin (90/12/15), Dominika Bioy (90.01.19), "Georges Brassens" Jean-Paul Sermonten erakusketa 91/03/01 - 91/03/07)

Partaide : Eihartza

ONDAREA

* **"Euskal Mitologia"**

▼ Lauburuk egindako **erakusketa** Izurako Kultur Etxean 1990.eko uztailaren lehen hamabostaldian.

Partaide : Haize Berri

▼ **Mahain ingurua** J.M. Apalategi, Txomin Peillen, Junes Cazenave-Harigile, Claude Labat (Lauburu), Pierre Oyhenart eta J.M. Bedaxagar, 1990.eko azaroaren 1ean Atarratzen Xiberuko Kultur Astekari.

▼ Lauburuk egindako **erakusketa** aste guzian

Partaide : Kultur Astearen Batasun antolatzalea

* **"Itsasoa"**

▼ Mintzaldiak

“Terre-Neuve-ko Abentura”, Joseba Behobide-rekin

“Arrantza”, Garat Kapitainarekin

“Itsas Bazterra”, Jean Bost-ekin

Urruñako Kultur Astekari, 1990.eko abendoaren 22, 26 eta 28an.

Partaide : Hazia

▼ Itsas Begiak egindako **erakusketa** 1990.eko abendoaren 21etik 31ra.

Partaide : Hazia

* **"Euskal Herriko mendien gune eta bide ezezagunak"**

Miguel Anguloren mintzaldia 1991.eko apirilaren 13an.

Partaide : Bardozeko Gaztetxea

* **Argazki erakusketa**

Euskal Herriko leizeak

Partaide : Haize Berri

EUSKAL KIROLAK

* “*Pilota*”

Jakes Cazaubonek egin erakusketa Aiherrako Gaztetxean 1990.eko azaroaren 25etik abendoaren 8ra)

Partaide : Belzuntze

KULTUR HARREMANAK

* **Euskal kultura eta Europako kulturen arteko 4. elgarretaratzeak** (1990.eko uztailaren 1ean). Gomitatua zen herrialdea : Galizia.

Partaide : Haize Berri

* ***Kultur Bideetan***

▼ Euskal kulturan lan egiten duten profezionalen **lehen elgarretaratzea** Loiolan (1990.eko azaroaren 14, 15 eta 16an). Antolatzaile : Kultur Bideetan. Euskal Kultur Erakundeko Daniel Landartek Euskal Kulturaren egoera Iparraldean aurkeztu du.

▼ 1991ean Kultur Bideetan eta Euskal Kultur Erakundea lotuko dituen **Hitzarmen** baten finkatzea helburua dela Euskal Kulturaren hedapena laguntea Iparraldeko 3 probintzietan (Hitzarmen horren textoa eranskinean agertzen da).

▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼ FORMAKUNTZA

ERAKASKUNTZA

* *Euskal Hizkuntza*

Euskararen eta Euskal Kulturaren ezagupena barnatzea gau eskoletako alfabetatze klaseetan (80 ikasle bederatzi toki desberdinan 1990-1991 ikasurterako).

Partaide : A.E.K.

* *Bertsularitza*

▼ Bertsularitzaren erakaskuntza segitza eta hobetza Ikastola, eskola eta ikastegietan.
Gaur egun, toki hauetan egiten da :

- Hendaia :	3 talde 17, 14 eta 11 ikasleekin
- Donibane Lohitzune :	4 talde 21, 12, 10 eta 10 ikasleekin
- Baiona (ZUP) :	3 talde 12, 11 eta 8 ikasleekin
- Arrangoitze :	3 talde 15, 11 eta 6 ikasleekin
- Uztaritze :	talde bat 25 ikasleekin
- Senpere :	talde bat 14 ikasleekin

Orotara : 197 ikasle

Erdi denboraz lanean ari den erakasle bat : Ernest Alkat (Nafarroako bertsularien xapelduna izana).

Beste erakasleak (ordainduak ez direnak) : Jean-Louis Hariñordoki eta Mixel Lekuona.
Partaide : Bertsularien Lagunak

▼ Daniel Landart bertsularitzaz mintzatu da Aiherrako eskolako haurrekin 1990.eko azaroaren 26ean, gai berari buruz egin erakusketa azalduz.

Partaide : Belzuntze

* *Ondarea*

▼ Euskal mitologia : Lauburuk egin erakusketaren aurkezpena Xiberoko 8 eskoletan bai eta ere Atarratzeko ikastetxean Koldo Amestoy kondalariarekin. 270 haurrek parte hartu dute.

Partaide : Uhaitza

* *Musika herrikoia*

▼ Gaïta, atabal, txalaparta : klaseak publiko guzientzat (gazte eta helduak bereziki)

Partaide : Haize Berri

* *Artegintza*

▼ Haurrentzat, margolaritza kurtsoak Uztaro taillerean

Partaide : Uhaitza

FORMAKUNTZA

* *Dantza*

▼ Dantza talde arduradunen formakuntza

- ❖ lehen zatia : "Jautziak, pirinetako ohidura bat"
3 egun formakuntza
- Bardoze : 1990.12.9
- Hazparne : 1991.1.5
- Ezpeleta : 1991.3.30

Erakasleak : Christophe Juste eta Claude Iruretagoiena

Bukaeran : Juan Antonio Urbeltzen mintzaldia.

- ❖ 2. zatia : "Ingurutxoa" egunak eta tokiak finkatzeko gelditzten dira
2 egun formakuntza

Erakasleak : M. Mikel Aramburu, Mari Sol Otermin Anderea, Leiza taldeko arduradunak eta Juan Antonio Urbeltz

Partaide : Dantzari Federakuntza, E.D.B.ren partaidezarekin 2. zatirako

* *Musika*

▼ Txistua

3 egun formakuntza mail on bat duten gazte eta helduentzat.

Erakasle : Christophe Juste

Partaide : Dantzari

▼ Gaïta : hatsaldi, inprobiazione eta teknikaren barnatzea

2 egun formakuntza Uztaritzen 1990.eko abendoaren 15 eta 16etan

Erakasleak : Mixel Delakian, Mixel Doneda, Beñat Achiary eta Xabier Lacunza.

Partaide : Errobiko Kaskarotak





ERANSKINAK

1991.eko aitzin-egitasmoa

**1991.eko urtarriletik maiatza arte
E.K.E.k lagundu kultur hedapena
(lehen bilduma bat)**
(Ikus frantsesezko eranskinean)

**Dozier garrantzitsu batzuen
aurkezpen labur bat**

"Kultur Bideetan"ekilako hitzarmena

Mikel-Angel Lertxundiren zizel-lana
“Lehena” 91.ko Hitza Pitz Festibalean.

Hedapena

- o “Hitza Pitz”, Munduko ipuin eta ipuin-kondalarien festibala, Hazparnen, irailaren azken astean.
“Hiru Uhainak” ikusgarria, Baionan, Bidarten, Getarian, Donib. Lohizunen, Hendaian.

ANTZERKIA

Sorkuntza

- o “Oztibarreko Antzerkia” taldearen obra
- o “Xirixti-Mirixti” taldearen obra

Hedapena

- o “Galarrotsak” Festibala Donibane-Lohizunen, 91.eko apirilaren 11, 12, 13, 14etan.
- o Talde gomitatuak : Maxkarrada, Anxieta, Kukubiltxo, Bordaxuri, Ikimiliklik, Hika.
- o Beste ageraldi batzu urtean barna, beste toki batzutan.

KARRIKA ANTZERKIA

Hedapena

- o “Kukubiltxo” Hazparnen, Uztaritzen, Bardozan, Atarratzen, Beskoitzen.
- o Beste ihauteriak : Donibane-Lohizunen, etab...

BERTSULARITZA

Hedapena

- o Bertsulari saioak toki desberdinetan
- o “Bertsulari ttiki” Hendaian, Kanbon.
- o “Mattin” bertsulariak publikoan eman bertsuen argitaratzea, bere joaitearen 10. urtemugakari.

ENTZUN-IKUS

Sorkuntza

- o Diaporama : “Pastorala”, etab...
- o Video-filmak : Aldudarrak Batasuneko M. Erramousperen egitasmoak, Lycée Cassin, etab...
- o Kultur emankizunak 3 euskal irratietan : G. Irratia, Irulegiko Irratia, Xuberoko Botza.

Hedapena

- o Euskal zinema saila
- o Begistatu tokiak : Don. Lohizune, Baiona, Heleta, Donapaleu, Baigorri, Maule.

DANTZA

Hedapena

- o “Zortziko” ikusgarria
- o “Nafarroa” : Oldarra dantza taldearen sorkuntza

- o "Pasaiako" dantza garaikidea : Ekarle taldea
- o "Gauzen izadia" : Thierry Guedj taldea
- o Dantzari elgarretaratzeak,...

KANTU - KORU KANTU MUSIKA

Sorkuntza

- o Elizanburu diskaren grabatzea (Artistiko zuzendaritza : Michel Ducau)
- o Beste grabatze egitasmo batzuen ikerketa

Hedapena

- o Baionan, "Korrika"-ren heltzea : kantaldi eta animazio
- o Kantaldiak (toki eta partaideak finkatzeko)
- o Maurice Ravel eta Felix Ibarroren inguruan elgarretaratzeak (Michel Sendrez-ek proposatu egitasmoa)

ARTE EDERRAK

Sorkuntza

- o Zizel-lana Mattin bertsulariaz. Egilea : Piarres Erdozaintzi-Etxart
- Etxebeltz marrazki-eskerniolariaren obra hoherenen argitaratzea

Hedapena

- o Erakusketa ibilkariak :
- o Begistatu tokiak : Maule, Izura, Hazparne, Senpere, ...
- o Egitasmoak : Pablo Tillac, Jesus Etxebarria, Mattin Partarrieu, ...
- o Bardozeko erakusketa :
- o 91.eko lema : Litografia (Messagier artistaren obrak besteak beste).

ONDAREA

Sorkuntza

- o Erakusketa ibilkaria ohizko jantziez. Egilea : Claude Iruretagoiena
- o Txalupa handi : Eraikuntzaren segitza. Egilea : Itsas Begia elkartea
- o Harri-biribil moldatzea. Egilea : Les Amis de la Vieille Navarre

Ikerketa

- o Leize-zilo ikertzea (Eusko Arkeologistak)
- o Xiberotar kantuen biltzea (Sü Hazia)

Hedapena

- o Animazioak, mintzaldiak (Lauburu)

EUSKAL KIROLAK

Sorkuntza

- o Pilota jokoaz ikerketa-lana. Egilea : Janik Aramendy

Hedapena

- o Argazki erakusketa pilota jokoaz (Munoz)

ERAKUSKETAK

Sorkuntza

- o Oraiko erakusketen hobetzea
- o Adibidez : Saiak, mitologia, Euskal etxea, arkeologia, pilota, Itsas Begia,...
- o Argazki erakusketak : Azken 10 urte hauetako euskal Antzerkia Ipar Euskal Herrian
- o Argazki erakusketak :
 - 20 urte afitxa Euskal Herrian
 - Murru margoak Euskal Herrian
- o Ipar Euskal Herriaz Erakusketa

FORMAKUNTZA / IRAKASKUNTZA

Formakuntza

- o Lotako mintzaldiak (euskaraz eta frantsesez) Erakundeak antolaturik
Gaiak : euskal artea, ondarea, literatura, ...
- o Formakuntza artistikoa : ikastaldi, elgarretaratze, ...
(dantza, antzerki, entzun-ikus, ohizko musika, ...)
- o Formakuntza teknikoa :
 - artistiko sailean : argi, soinu, ...
 - administrazio sailean : kudeantza (gestion), konduegite, ...

Irakaskuntza

- o Ohizko musika, dantza, bertsularitza, artegintza, ondarea, ...
- o Euskal hizkuntza eta kulturaren barnatzea, helduen Alfabetatze klaseetan (A.E.K.)



BILDUMA

Dozier garrantzitsu batzuen aurkezpen labur bat

Urtarilez geroz, alor desberdinetan lan egiten duten batzordeak Euskal Kultur Erakundean jarraituki biltzen dira egitasmo garrantzitsu batzuren ikertzeko eta aitzina erazteko. Erakundeak bere egitekoa betetzen du : ideien trukagune, solastatze, gogoeta toki, koordinatziaile ; denbora labur barne, kulturgintza bere funts osoan hartuz, baitezpadakoak diren ekintzen itzain agertuko da.

1- Hizkuntzaren sustapena

Bide seinaletaz egin lehen agiri elebidun bat : "Herrien eta bide-seinaleen lehen hiztegia". Argitaratza : 1991eko maiatzaren ondarrean.

Lehen lan biltzarre bat apirilaren 4ean egina izan da Euskal Kultur Erakundean. Han zirenak :

- Daniel Camblong eta Beñat Inchauspe Jaunak, Hazparneko Herriko Etxearen izenean ;
- Obac-Etchegaray Jauna, Donibane-Lohizuneko Herriko Etxearen izenean ;
- P. Charritton eta B. Oyharçabal Jaunak, Euskalzaindiaren izenean ;
- D. Landart eta Tx. Heguy, Euskal Kultur Erakundearen izenean.

2- Literatura

Lau eta zortzi urte arteko haurrentzat hilabetero plazara litekeen agerkari baten lehen alearen apailatzea, "Toboggan" idurikoa (salmentaren ikertza). Toboggan agerkaritik 24 orrialde euskaralat itzuliak, 4-8 orrialde hemen berean asmatuak.

Agerpenerako egunak : 1991eko urriaren 18-19etan. Egun horietan ospatuko da "irakurtzeko errabia".

Maiatz hastapenean : Milan argitaletxearekin, egitasmoaren aztertzeko lehen biltzarrea egin zen.

Ekainaren 16an : dozier hori, Europako mintzaira gutiotsien bulegora helarazia izan da (iduriz, proiektu hori, arras gustukoa du).

3- Antzerkia : Pastoraldoziera

1991eko martxoaren 28an : aurtengo pastoraletaz mintzatzeko, Larrañe eta Muskildi herrietako ordezkarien eta Euskal Kultur Erakundearen arteko bilkura.

Erakundearen gogoetak

Bi pastoralen sorkuntzarako laguntza bat eman, zertarako ?

Urte berean bi pastoralen sorkuntzarako laguntza bat eman, zertarako ? Urte berean bi pastoralen sorkuntzarako laguntza bat eman, zertarako ? Bestela erranez, Erakundeak emanen duen diru-laguntzarekin ez ote da "pastoral kutxa" bat egiten ahal ? Arnaud Aguergarayek pastoralaren historiaz preparatu tesisaren argitaratza, pastoral idazleen elkarretaratza, biharko "errejent"-en formakuntza, pastoralaren sustapena (gazteri buruz diaporama baten apailatzea, bai eta pastoral bat zer den, Euskal Herritik kanpo ere ezagutaraztea), horra hor gai premiatsu batzu...

Apailatzen ari ditugun dozieren mamia (Europako Hizkuntza gutiotsien bulegoan presentatuko dena, datorren ekainaren 16an).

- Xuberoa probintziaren aurkezpena (presentazionea),
- Pastoral : historia laburra eta deskribapena (Arnaud Aguergaray)
- Pastoralen montatzea gauregun : Xuberoako herri batentzat zein dira ondorioak ? Larrañe eta Muskildi herrien lekukotasunak.
- Bi pastoralen aurkezpena
- Finantzaketa osoa
- "Pastoral kutxa" bat sortu : zertarako ?

4- Entzun-Ikusgailuak

4.1- Bidasoaz honaindian Euskal Telebistaren errezebitzeak sortzen dituen arazoetaz beste, azken denbora hauetan, batzorde batek lan-bilkurak egin ditu, galdera honi erantzun bat ekarri nahiz : **zer telebista ekoizpen iparraldeko?** (gauregun, dakigun bezala, FR3 Aquitaine, hilabetean bi aldiz, hamar minutako emankizun bat zabaltzen du, frango zaharkitua dena). Talde bat proiektu argi eta garbi baten preparatzen ari da. Nornahik ukantzeak dokumentu horren berri. Lehen epe batetan, asteroko emankizun (elebidun ?) moderno baten Euskal Herrian berean kontzebitza eta eratzea posible izanen dea ? Bigarren epe batetan, egunero, hemengo zerbaiten erakustera helduko ote gara ? Tours, Lille eta Nantes hirietan, jadanik eginak diren esperientzien arabera, Euskal Herrian, hurbiltasuneko telebista bat beharrezkoa dugu, ez ?

Europa mailan eta eskualdeen artean bereziki, zinezko elkarlan bat ez dea aiseagotua izanen euskal telebista dela medio ? Gainera, Euskal Herrian gero eta gehiago bideoa baliatzen da elkartea munduan. Hoien eramaileak ere ez ote dira nolazpait partaide izaiten ahal ?

4.2 Komunikabide ofizioetarako formakuntza proiektua

Dozier hori, Radio France Pays Basque, hiru euskal irratiek eta Euskal Kultur Erakundea segitzen dute.

Radio France Pays Basque irratia beharrezko iduritzen zaio lankide euskaradunen ukaitea, halaber beste irratietako heina hobetu behar litzateke. Bederatzi hilabeteko formakuntza proiektu baten ikertzen ari gara, IFIC eta Baionako komertzialdegiarekin. Lan biltzarrea : 1991.eko apirilaren 22an, Euskal Kultur Erakundean.

5- Kantua : Elizanburu diska

- Artistiko zuzendaritza, antolaketak, orkestrazioa : Michel Ducau
- Kantariekin biltzarra : 1991.eko apirilaren 29an
- Zintan hartzea : 1991.eko ekainean
- Plazaratzea : urriaren 12an.

6- Arte ederrak

Ziburuko Herriak erosia duen "Nerea" deitu etxea, arte ederren etxe bilaka dadin, proiektu bat dago.

Dozier hori, LAU elkarrekin kudeatzen du. Gai horretaz bilkura bat egina izan da, Ziburuko Herriko Etxearen, apirilaren 24ean.

Proiektu zinez interesgarria : toki horri esker, erakusketak, ikastaldiak antolatuak litzelarik eta gainera, arte ederren dokumentazio guzia hor kokatua litzateke.

7- Ondarea : 1991-92.eko ekintzetaz xehetasunak

- "Ondarea" nozioaz, Lauburu elkarrekin egin diaporamaren presentazioa (Musika, Beñat Achiaryk egina du).
- "Euskal etxea" gaiaz egin erakusketaren sorkuntza
3 ardatz : Eraikuntza ingurumenean
 Eraikitzen duen gizona
 Eraikuntza eta bere bilakaera
Erakusketa hori, Irisarriko Ospitalean aurkeztua edo presentatua izan daiteke.
- Urte ondar honetan, Lota Jauregian antolatu nahi ditugun mintzaldien gaia, besteak beste, ondarea izanen da.
- Ondarearen alde bermatzen diren talde eta elkarrekin zerrenda batekin osatu liburutto bat argitaratuko dugu.

▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼▼ Hitzarmen

KULTUR BIDEETAN TALDEAREKIN IZENPETU HITZARMENAREN TEXTOA

Alde batetik,

KULTUR BIDEETAN
C.L.P. Central Mondragon
GIPUZKOA

Ordezkari :Enrique FORONDA Jauna

eta bestetik,

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
B.P. 27
64480 UZTARITZE
Ordezkari : Txomin HEGUY Jauna

Bien artean hitzarmen hau finkatzen da 1991.eko urtearentzat :

Lehena : Hitzarmenaren gaia

Kultur Bideetan eta Euskal Kultur Erakundeak Euskal Kulturaren hedapena Ipar Euskal Herrian bultzatzea helburutzat hartuz, kultur programazio bat elgarrekin kudeatzen dute.

Bigarrena : Egitasmoaren aurkezpena

Horretarako hauxe erabikitzen dute :

- 1- Kultur Bideetan taldeak 3.000.000 pezetako (150.000 Franko) diru lagunza orokorra ekarriko du urte osoarentzat. Gainera programazio honetan eginak izanen diren ekintzen publizitatea (afixak, esku agiriak) bere gain hartzen du.
- 2- Euskal Kultur Erakundeak bere aldetik, 150.000 Franko ere emaiten ditu.Urte honetan zehar, lekuko antolatzaile edo partaideekin programazio bat xutik ezartzea eta ondorioz Kultur Bideetan taldearekin finkatzea bere gain hartzen du.
- 3- Diru kopuru hori, programazio honetan sartuko diren artista, filma, erakusketa..., gastuak osoki edo parte ordaintzeko baliatua izanen da. Gastu horiek, bi erakundeek zuzenki bere gain hartuko dituzte, lekuko antolatzaileekin hitzartu ondoan.
- 4- Nahiz eta Kultur Bideetan eta Euskal Kultur Erakundeak izan programazio hunen kudeatzaile nagusiak, lekuko antolatzaileak gelditzen dira egitasmoaren eramaile (azpiegiturak eta sarrerak beren kondu).
- 5- Esku-agiri edo propagandetako azken ostoa, Kultur Bideetan, Euskal Kultur Erakundeak eta bi hauien sustatzaileen izenak eta anagramak agertuko dira. Barne aldean aldiz, lekuko antolatzaileen izenak edo zerrendak azpimarratuak izanen dira. Bestalde esku-agiri horiek bi hizkuntzetan eginak izanen dira (euskaraz eta frantsesez).
- 6- Programazio honetan sartzen ahalko diren artistak (edo erakusketa, etab...) ipar eta hego Euskal-Herrikoak izanen dira.
- 7- Hitzarmen honen barnean eta lekuko antolatzaileen partaidetzarekin, ahal bezain programa zabala eta hedatuaren antolatzea entseatuko da Euskal Kultur Erakundeak.
- 8- Bestalde, Kultur Bideetan eta Euskal Kultur Erakundearen artean hurbilezko harreman jarraikiak izanen dira, mugaz bi aldetako kultur kurutzamenduak zabaltzeko, hobetzeko eta sendotzeko asmoz.
- 9- Hitzarmen hau Kultur Bideetan eta Euskal Kultur Erakundeak 1991.eko urtearentzat finkatzen dute.

PRENTSAN

ZEHAR



REVUE DE

PRESSE

Le génie de Bordaxuri

N'ayons pas peur des mots, Bordaxuri a du génie. La représentation de clôture du Festival Galarrotsak en a été, hier après-midi, l'éclatante illustration. « Berantenaz seistar », « Au plus tard à 6 heures » est vraiment une pièce magique. Ecrite par Marc Perrier, traduite et adaptée en neuf langues, dont la langue basque, grâce à Janine Urruty, elle a tout pour séduire. Mais quand elle est interprétée par des acteurs comme ceux de la troupe Bordaxuri, elle prend encore plus de force, plus de vigueur.

Ce n'est pas une pièce facile. C'est avant tout un dialogue. Deux hommes face à face. Chacun a son secret, chacun cultive son mystère. Comme tout être humain sans doute. Ils se sont rencontrés par le plus grand des hasards. Car il faut bien appeler cela le hasard. Une voiture qui manque un virage et qui éventre littéralement le mur d'une maison pour se retrouver... dans une chambre à coucher!

Dialogues superbes. Fascinants. Qui collent à la réalité de tous les jours même quand ils paraissent surréalistes. L'automobiliste est sans doute un truand. N'a-t-il pas raflé la recette d'un casino ? L'homme qui l'accueille, bien malgré lui d'ailleurs, a perdu sa femme et son fils. Il a connu le monde de la drogue...

C'est poignant, c'est vibrant, c'est superbe. Avec, ici et là, quelques traits d'humour, pour détenir un peu l'atmosphère...

Txomin Héguy et Pantxo Cousteau sont vraiment brillants. Le régisseur, Xan Othabure et le meilleur en scène, Jean-Marie Broucarel, méritent eux aussi les plus vifs éloges.

POUR L'AVENIR

On ne pouvait imaginer meilleure conclusion pour un festival de qualité qui a rallié tous les suffrages. Un festival dont le succès avait été salué quelques heures

auparavant lors d'une réception officielle à l'hôtel de ville, autour de MM. Michel Carricaburu, adjoint au maire, et André Obec-Etchegaray, conseiller municipal, délégué à la culture basque.

Une réunion très protocolaire certes après le défilé des géants à Ihauteri. Les organisateurs ont remercié la municipalité. Après quoi, la municipalité a remercié les organisateurs ! Tout le monde était content en somme... Mais ce qui importe, par-delà les allocutions, si chaleureuses soient-elles, c'est cette volonté de développer les efforts en faveur du théâtre, cette foi en l'avenir que Pantxo Etchegoin, président d'Euskal Herriko Antzerkilarien Biltzarra, a exprimé avec tant d'enthousiasme...

Pour en revenir à « Berantenaz seistar », ceux qui ne l'ont pas encore vu et ceux qui veulent le revoir doivent savoir qu'une nouvelle représentation en sera donnée vendredi prochain 19 avril, à 21 heures, au trinquet Moderne de Bayonne, au profit des ikastolas de cette ville.

SUD-OUEST - 1991.04.15

'Berantenaz seietan' bijokolari handien emaitzarekin

L.L. / LOHIZUNE

Bi gizonen topaketa, baldintza arrau batean, eta honen ondorioz, bakoiitzaren oihalaen harien barreratzean, bizuiren xamurtasun eta bortizaren elkarreleku erakutsi zizun Bordaxuriren antzerki berriak. Beti gerrikari da talde honen emaitza bat, beti urrutia goi, beti sakonago, pertsonaren ikerketaren bidaiara gomitanzen baigaitu.

100 minutuko solasaldian, Txomin Hegi eta Pantxo Cousteau tentio bizian atxekizuten publikoa, taula zuzentze zehatz baten ondorioz. Broucarel eta Bordaxuriren ekipo guztiak ohitu gaitu horretara. Lanaren goi maila batera iritsi direla ez da budagarri hemen ere.

Txomin Hegik bere poza azaldu zuen ondotik «estrenizzearen grazia bereziak» azpimarratuz. Azken urte hauetan kreatu zituen pertsonai kezkati horietaz zioen «gustokonk dituela eta bizitzeko gogoari lotuak direnek dutela interesatzen». Nahi



Pantxo Cousteau bilhurtu da Galarrotzen errebelazioa

L.L.

izan zuen Jean Marie Broucarelaren taula zuzentzea goretsi «bere konfidental eta lanagatik». Pantxo Cousteau, nekazarrien kontabilitatean especializatua dena, ez zen tauen gainera iragana azken sei urte hauetan, 'Basa Jauna' gerotzik. Joko guztiz ederra eremun zuen igandean. Zergatik ari den? «Egun guztiak bizia kanbiatzen duelako antzerkiak eta publikoaren aurtean historia batzen kondatzea asko maite duelako».

EGUNKARIA - 1991.04.16

OLDARRA EUSKAL BALETAK

Baigorriko XIII kultur

astea irekiko du

Miarritzeko Oldarra dantza taldeak lehen jildikotz aurkeztuko duen L'Nafarroa' balletarekin, apirilaren 27an, gaueko 9etan,

Baigorriko elizan,

Koldo Zabala,

koreografoaren zuzendaritzapean, 30 bat dantzari eta beste hainbeste kantari eta musikari zeharkatuko dituzte Nafarroa

Ertzunaren hiru garaia historiko desberdin, oren batez irauten duen ikusgariaren bidez,

KOLDO ZABALA



«Euskal Herriko jendearentzat egin dugu balleta»

JUANJO / BAIÓNA

EGUNKARIA.— «Nafarroa» balleta lehena aurkezten aldi digu?

KOLDO ZABALA.— Aspaldiko urtetan pogon neukan balleta zen, diela gutti gauratzudan. Hiru garai desberdunetan banatu da: mitologia eta euskal sinestetik gurutzeantxotatutako garaian; Egi Arotz arina Nafarroako Uzteregune ospeak konduzitzen dituenak eta azkena, Napoleón garaikoa. Hiru nirek eta ikusgarienak, hau hizkuntzak eta zentroak, hau hizkuntza orainoko mugak finkatu eta Nafarroa Behereko Nafarritik bereizi.

EGUNKARIA.— Nolazpi, Nafarroako Ertzunaren historia erakusten dura dantzau?

X.Z.— Itxi, baina gehien bat erakusteari bat da, Nafarroako historian interesatzen zuen Napoleón galdu ditu hainbat herrikotarren desberdinak hantzen aldi nitzuen era.

Lehengueta parte, mitologia laugari interantean saskitu dugu zeren talkoen sakonu ahal izan baitugu lehenengo dantzien erakusgarriak; jatorria, horrela eta eguzki dantzak berantzigatik kristau sinemanetan beretu zituzten. *

Mitologikoa pertsonaiak gehienak saskitzen dira Lantzeko edo Altasauko Ikerlarietan. Hala nola Altasaukoan, Mais Jainkuna agertzen den lehengua, arraua, zeren eku enakunde nazukane.

Bigarten jarraian, Nafarroako Kintegian ematen ohi ziren dan-

tzak ezarri ditut zeren Eusko nafar bil Oñateko gartzelera etorren ziren dantza egiten. Dantza bat berezgunean: Navarra, hau berria, hantzen du eta Bistaz dena bestea giza buera ematen. Dantzen bihurri ere azpinarratzen du Nafarroa eta

dena militarrak utzi dituen eraginak gure kultura ala nola itxita berriztatzan. Itxitea putzia irudinari esterizan da.

EGUNKARIA.— Zenbat denitza askunzta berri hau lanzen duzuza?

X.Z.— Antzokuntra lana da zailena izan. Arkenean balleta monnatur duzu biziwalu biltzen egin nukus. Bebat Axuri Lantzarrekin, Pierre Haizea, koreografia eta musika portzat jotzen zituen eta Jean Ideczerrekin, hiruk batu koreografiaz klazistiz, Jantziatz Maile Zabala eta Claude Izurtagoienaria aduraztu. Ballet honen berezitasuna da ez dela anaiusia, aldaztu juanen dela, hizkiet hadiut luagaten zati batzen erantzute, gaur egungo hizkuntzari lehorrak direnean, hizketak hau berezik Euskal Herriko jendearentzat egin dugu eta Nafarroako erakuskeria rai gaude, nahi nuko horurazeta hezik etar dezaten,

Amaiturko guduka aski horitzki hizkarazi nahi izan ditu. Agertu nahi itan ditut ere Napoléon garaiko ordena militarrek utzi dituen eraginak gure kulturan

Aragoiko Ertzunaren artzko guduka, eta hizkia ere Kastillako Bertsosunak.

Ansiozko guduka aski hizkia hizkarazitakoaz, Apaturraldean izan du ere Napoléon garaikoa ur-

SOSLAIA

Euskal dantzen altxor itzela

Koldo Zabala, jatorrie hizkaitarra, 1942an sortu zen Oldarra taldean. Parisen egiten zuen dantzari klasekoaren formakuntza, Diagilev-ko hizkentzen buru zen Alexandre Volinine ikasle izan zen eta Parisen Konserbitzukoa Yves Brieux-Urtaritz maioren Llasesk Jarraituko zituen. Gaur egun Itzamako Konservatorio Narionalaren irakasle, Oldarra taldeko munduan zelar zaizkion hizketa sozialak Iruñanak, "Montarcean", "Xubetan", "Gernika", Koldo Zabala-ren "Euskal Herriko dantzen altzairu" irupentzia da. Ez baitzuten munduan beste berri bat guri parekatzeko aldi denik».

EGUNKARIA - 1991.04.25

NAFARROA

Pavane pour un aigle

«Nafarroa» : samedi une évocation de la Navarre par les ballets Oldarra pour cette 13^e Euskal kultur astea. A la veille d'une nouvelle Journée de la Navarre



Un coup de foudre

Anne-Marie Bordas

Bâties d'origine, Marront et le Four à pain, Koldo Zabala a toujours été un véritable coup de foudre, chaque fois qu'il s'est penché sur l'une des partitions laissées où l'autre aménage ses pas de danseur et sa curiosité de chorégraphe. La Navarre l'a aussi nourri pendant ces derniers mois. Il a foulé ses entrailles, palissé au plus profond de cette terre dont la diversité n'a d'égal que la richesse, la volonté nécessaire à une nouvelle création.

Il a apprivoisé la plaine, il a sillonné le ciel de Biarritz, au-dessus de l'opéra et des cimes d'Iratygu, le paysage, la plaine, le plateau, le village, l'herbe, l'eau... Depuis Koldo Zabala ne assurait donc trouver théâtre plus approprié pour une première... Mal à cela l'empêche pas de se transporter un jour dans un site plus prestigieux, comme le château d'Olite, là même où jadis la cour avait ses halles. C'est prévu. On l'imaginera déjà dans robes qui évoquent les vêtements de la cité et les chaussons qui foulent ce sol belli de bétaille.

Koldo Zabala est convaincu que la Navarre est le berceau de la culture basque : « J'ai retenu trois moments dans la nuit des temps qui l'est façonnée, non pas pour me laisser dans une reconsidération historique mais pour une évocation. Où me suis-je arrêté ? Aux festes oubliées des rois de Navarre et à l'épopée napoléonienne qui a grandement marqué nos dances les plus populaires, mais aussi de l'épopée chrétienne. C'était celle des dieux et déesses, d'une nature primitive qui, seule, pénétrait la vie des humains ».

bala, entré à Oldarra en 1947, a fait ses preuves. La passion qui l'habite est restée intacte. L'ancien élève d'Alexandre Volinine (les ballets de Diaghilev) et professeur au conservatoire national de Bayonne, vit ses derniers jours qui le parent du « grand moment », dans la félicité. De quoi il fait partie, et il le répète, jusqu'à la fin de ses dernières années, jusqu'à l'aigle hanté par son amitié pour les militaires. Mais les pressions qu'il faudra réaliser pour transformer le théâtre de Pôle-Vie en véritable scène le poursuivent. Il y aura deux jours de représentations. Et mille détails à voir.

